




ENPLEGU IGURIKIMENAK

Enpleguari buruzko igurikimenak egonkor mantendu dira azken hilabeteetan

ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROGUNEA

2024KO MARTXOA
102,6




Martxoan, enpleguari buruzko igurikimenak baikortasun neurritsuaren barruan kokatu ziren berriro, Europako Batzordeak argitaratutako hileko indizearen arabera. Hala, euroaren eremuan 102,6koa izan zen balioa, eta Europar Batasunean, berriz, 102,3koa. Bi kasuetan, ez dago alde handirik aurreko hilabeteetan eskuratutako balioekiko eta egonkortasun handia nabari da bilakaeran, pandemiaren ondorengo errebotea atzean geratu ondoren.


Enpleguari buruzko igurikimeneen bilakaera ona urrun dago jarduera ekonomikoan oraindik ere hautematen den ahuleziarekin, sentimendu ekonomikoaren indizeak erakusten duenez; izan ere, indizea berriz ere 100eko balioaren azpitik dago, bai eurogunean (96,3), bai Europar Batasunean (96,2). Alemania da, herrialde handien artean, emaitzarik txarrena izan duena (89,8), baina ia puntu bat egin du hobera aurreko hilabetearekin alderatuta.

ENPLEGU IGURIKIMENAK EUROPAR BATASUNA


2024KO MARTXOA
102,3



ENPLEGU IGURIKIMENAK ALEMANIAN




ENPLEGU IGURIKIMENAK FRANTZIAN




Enpleguari buruzko iritzietan, alde nabarmenak daude euroguneko lokomotoren eta gainerako herrialde garrantzitsuen artean. Hain zuzen ere, Alemaniak (97,9) eta Frantziak (97,7) ezkortasuna agertu dute arlo horretan, eta ez dira eremu positiboan finkatzen lortu; Espainiak (108,1), Italiak (106,4) eta Herbehereek (104,3), ordea, okupazioaren etorkizuneko bilakaeran konfiantza iradokitzen dute, eta hiru urtez luzatu da irudi hori, egonkortasuneko profil nabarmenarekin.


ENPLEGU IGURIKIMENAK ITALIAN



ENPLEGU IGURIKIMENAK HERBEHEREETAN



ENPLEGU IGURIKIMENAK ESPAINIAN



Iturria: Europako Batzordea.